

BI MILA ETA HAMABOSTEKO IRAILAREN HOGEITA ZORTZIAN EGINDAKO APARTEKO BILKURAREN AKTA.

Arrietan 2015eko irailaren hogeita zortzian, 19:30etan Udalaren Osoko Bilkura osatu du udaletxeko Bilkura Aretoan, Angel M^a Acillona Martínez alkate Jauna Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Aitzbea Yarto Goiri
Elixabete Arriaga Calvo
Aitziber Ibinarriaga Delgado (Norberak lekarkeena puntuan)
Aintzane Enzunza Zorrozu
Haizea Bengoetxea Andikoetxea
Gartzen Agirregoitia Abad

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeko eta eztabaidatzeko dagozan aztergaiei ekin jake.

I.- BI MILA ETA HAMABOSTEKO IRAILAREN ZAZPIAN EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.

2015eko irailaren zazpiko bilkuraren aktaren zirriborroa irakurri ostean, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

II.- ASKAPENA, ASKAPENA, HERRIAK ASKE ETA ELKAR TRUKE MOZIOAK

EH BILDU eta EAJ-PNV talde politikoek aurkeztutako mozioak ikusita, nazioarteko elkartasuna garatzen dituzten erakunde eta pertsona guztiei laguntzari buruzkoak:

Eh Bilduk aurkeztutako mozioa.

“Elkartasuna da herrien arteko samurtasuna”. Oinarrizko printzipio bat da, gizakiak elkarbizitzarako lege eta araudiak, zuzenbidea eta irizpide etikoak sortu zituenetik. Hala ere, pertsonen nahiz herrien arteko elkartasun eza agerikoa da oso, geure mundu honetako gaitzen aurrean begiak itxi nahi ez dituenarentzat.

Elkartasunak, asmo onen bilduma hutsa izan ez dadin, bi baldintza bete behar ditu: batetik, gaiarekiko sentiberatasuna daukaten gizon-emakumeak antolatu ahal izatea; bestetik, gizarteak antolakunde horiek babestea egoki deritzen tresnekin. Udala da baldintza biak gauzatzearen erantzule, herritarren nahiarekin bat eginik.

Elkartasunezko internazionalismoak herri gisa beste herri batzuk babestea du helburu, bidegabekerien benetako kausen aurkako borrokan, gurea ere baden borrokan; eta beti ere kanpoko esku hartzearen aurkako jarreratik. Hori ez da lan erraza nazioarteko egoera gatazkatsuan, non laguntza humanitarioa xantaia politiko eta militar moduan erabiltzen den.

Udal honen aldetik, ezagutzen dugu nazioarteko elkartasunaren alorrean Askapenak 28 urte luzez eramandako jarduera politikoa. Brigada internazionalisten bitartez, elkartasun kanpainen bitartez, bertoko nahiz nazioarteko topaguneetan bidegabekeriaren aurka egindako salaketan bitartez etab. Askapenak herrien arteko bidezko funtzionamendu demokratikorako ezinbesteko baloreak eman dizkio euskal gizarteari. Hemen salatu nahi dugu Askapena fiskaltzaren ilegalizazio eskaerari aurre egin beharrean dagoela, Herriak Aske elkartearekin eta Elkar Truke SL-rekin batera; baita bost militanterentzat seina urteko kartzela zigorra eskatzen dutela ere, elkartasun internazionalistaren baitan egindako lanarengatik. Hori guztia ekubide zibil eta politikoen aurkako beste eraso dela deritzogu. Jokabide horren atzean dauden helburu politiko eta alderdikoak salatzen ditugu. Askapenaren bitartez eta elkartasun internazionalistaren baitan euskal udalek burututako jardunari zilegitasuna kendu izana gaitzesten dugu. Espainiar fiskaltzaren erabakia Euskal Herriko gatazkaren konponbidean arduragabekeriaren ipinitako oztopoa dela uste dugu. Horrexegatik guztiagatik Udal honek honakoa adierazten du:

- 1) Elkartasun internazionalista bultzatzeko lanean diharduten erakunde eta pertsona guztiekiko babesia;
- 2) Askapena, Askapeña, Herriak Aske eta Elkar Truke-rekiko nahiz inputatutako bost euskaldun internazionalistekiko elkartasuna;
- 3) Askapena, Askapeña eta Elkar Trukek egiten duten lana ez oztopatzeko exigentzia;
- 4) Walter Wendelin, Gabi Basañez, Unai Vazquez, Aritz Ganboa eta Dabid Soto euskaldun internazionalisten aurkako epaiketa euren absoluzioaz amaitzeko, dagozkien eskubideak itzultzeko eta zor zaien erreparazioa emateko erreklamazioa.

EAJ-PNVk Askapenari buruz aurkeztutako mozioa.

Prozesu judizial honek gogora ekartzen ditu 18/98 sumarioaren (AEK) eta Euskaldunon Egunkariari buruzko sumarioaren garaiak. Prozesu hauek ez zuten sekula hasi behar ezta martxan jarri ere, oinarri juridiko penalik ez zegoelako eta hasieran eta garapenean helburu eta oinarri politiko argia izan zutelako. Prozesu hauek justiziaz aparteko irizpideetan oinarritu ziren, besteak beste talde terroristako kide eta edo kolaborazio kontzeptuaren gaizkizatea edo hedatzea, horretarako inolako oinarririk edo eta frogarik izan gabe. Prozesu hauetan auziperatuei ETaren militante izatea edo talde horrekin kolaboratzea egotzi zieten, lege barruan egiten zituzten jarduerak kulturalak, kazetaritza lanak edo lan politikoak ETaren agindupean egiten zituztela argudiatuta. Hau dena egin zen PPren gobernua Alderdien Legea eta ondorengo ilegalizazio prozesuak egituratzera eraman zuen filosofia nagusitu zen testuinguru politikoan. Orain haren jarraipena ikusi nahi dute Askapena ilegalizatzearekin (Askapeña, Herriak aske eta SL Elkar truke).

Urte batzuk beranduago, historia berbera errepikatu da. Eta, gainera, epaiketa bestelako testuinguru batean garatuko da, hau da, gaurko egoerak planteatzen dituen zailtasun eta konplexutasunen gainetik ere, bake eta normalizazio prozesua Euskadiko erakunde politiko eta sozial guztiek onartzen duten egoeran.

Arrazoi horiek direla eta auzibidezko prozesu hau hasteak bidean atzera egitea suposatzen du eta giroa gaiztotzen duen elementua da euskal gizartea normalizazio politiko osoa lortzeko prozesuan ari den une honetan .

Gure ustetan, epaiketa honi gutxieneko eta funtsezko oinarri juridikoa falta zaio. Beraz, ez zen sekula hasi behar edo, bere kasuan, kausak eta prozedurak artxibatuta egon beharko zuten, artxibatze honek justiziaren prestigio eta agintea berreskuratzen lagunduko zuelako, Euskadin bake eta normalizazio prozesuari aurrera egiten laguntzeaz gain.

Arestian esandakoetatik guztiagatik EAJ-PNVren udal taldeak osoko bilkuran eztabaidatzeko eta onartzeko aurkezten du honako

MOZIOA

Arrietako Udalak bere gaitzespenik sendoena adierazten dio sekula hasi beharko ez zuen prozesu honi, eta auziperatu diren pertsona guztiak errugabe jotzeko erabaki judizialaren bidez berehala amaitzea exijitzen du.

Udalbatzak, aho batez, mozio biak onartzea erabaki du.

III.- ERREFUXIATUEN MIGRAZIO FLUXUEN GAINEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK

EH BILDU eta EAJ-PNV talde politikoek gatazka politiko eta militarrek jasaten dituzten errefuxiatuen egoera dela eta, aurkeztutako adierazpen instituzionalak ikusita,

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA (EH BILDU)

Europako herrialdeetarako migrazio fluxua errealitate geldiezina da azken urteotan, ezberdintasun sozialen, krisi humanitario eta ekonomikoen eta Afrikako, Europako Ekialdeko eta Ekialde Hurbileko gerra gero eta ugariagoen ondorioz.

Drama humanoa da, haien herrietatik ihesi datozen milaka eta milaka personen heriotza eragiten duena. Hala ere, mundua lekuko isila da eta mendebaldeko agintarien ezintasuna eta geldotasuna gero eta nabariagoak dira.

Azken urteotan barne gerrek eta okupazio militarrek exodoak eragin dituzte Sirian, Iraken edo Afganistanen. Azkenaldian, horri beste errealitate bat gaineratu zaio, fanatikoa eta muturrekoa, Ekialde Hurbila ez ezik, Europako herrialdeak ere atentatu eta beldurra hedatzeko ekintzez kolpatu dituen.

Errealitate berri honen irtenbidea konplexua dela jakinda, onartezina da Europar Batasunaren eta haren gobernuetako agintari politikoek isiltasun mingarria. Gatazkek eta giza eskubideen urraketak eragindako migrazio fluxu honi ezin zaio erantzun alantzez eta jazarpen militarraz, ezta bizirik jarraitzeko ihesi datozenei merkataritza kuotak ezarrita ere.

Antzeko egoeretan, Donostiak elkartasun aktiboa erakutsi eta justizia eskatu izan du; horixe egin zuen Balkanetako gerraren garaian eta horixe egiten du, oraindik ere, saharar herriarekin. Elkartasun horrek Donostia ezaugarritu du, eta ezaugarritzen du oraindik ere.

Honengatik guztiarengatik, Arrietako EH Bildu udal taldeak honako ADIERAZPEN INSTITUZIONAL hau aurkezten du:

1.- Arrietako Udalbatzak hiriak Siriako eta beste herrialde batzuetako gatazka politiko eta militarretatik ihes egiten duten pertsona errefuxiatuak hartzeko prestutasuna adierazten du, baita konpromiso bera duten beste udal batzuekin lan egitekoa ere.

2.- Europar Batasunak erantzukizun garbia du errefuxiatuen exodoa eragin duen Ekialde Hurbilaren desorekatze egoeran. Horregatik, krisi humanitario honi modu aktiboan eta elkartasunez eta justizia humanitarioaz erantzuteko eskatu behar zaie bertako estatu kideetako agintari eta gobernuei. Gerra hauetatik ihes egiten duten edo tragedia hau aprobetxatzen duten mafien biktimak diren pertsonen hartzeko beharrezko bitartekoak bidera ditzaten ere eskatu behar zaie.

3.- Arrietako Udalbatzak Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari tragedia honen aurrean jarrera aktiboa eta solidarioa har dezaten eta haren ondorioak arintzeko eskura ditzuten bitartekoak bidera ditzaten eskatzen die.

4.- Arestian aipatutako bi erakunde horiekin eta Euskal Herriko beste udal batzuekin lan egiteko konpromisoa hartzen du Arrietako Udalbatzak, errefuxiatu hauek hartzeko tokiko sare bat egituratzeko.

Adierazpen Instituzionala (EAJ-PNV)

Europar Batasunak erronka erraldoiei egin behar die aurre egunotan. Besteak beste, errefuxiatuen ihesak eragin duen tragedia humanitaria. Milaka pertsona dira, etsipenak bultzatuta, Siria, Irak, Afganistan eta Afrikako hainbat herrialdetan bizi diren gatazka armatuen eragin beldurgarrietatik ihesi, Europarako bidera hartu dutenak. Drama honek, bigarren mundu gerratik gure kontinentean ezagutu ez den neurria hartu du azken urte hauetan.

Europar Batasunerantz zuzentzen diren errefuxiatu kopuruen hazkunde hau izaera konplexu eta askotarikoa duen arazo orokorra da. Arazo honen erdian arriskuan jartzen da mundu honetan baliorik handiena duena, pertsonen bizitza, alegia. Eta, horrela izanda ere, talde populista eta xenofoboek nolabaiteko pizkundea eragiten du, eta arriskuak planteatzen ditu Batasunaren eta Schengen esparruarentzat; ondorioz, Europar Batasunari egitasmo batu bihurtzeko orduan planteatzen zaion erronkarik handienetakoa da hauxe.

Errefuxiatuak horren kopuru handitan eta masiboki iristeak europar Herrialde guztiei eragiten die, baina arazo horiek konpontzeko erantzunak ezin dituzte Estatuak beren kabuz eta era isolatuan eman. Aldi berean,

erabat okerrak eta emaitzarikgabeak izan dira Europar Batasunak orain arte aldirik aldi gure kontinenterantz abiatu diren eta une honetan iraunkor bilakatu diren migrazio olatuen aurrean hartutako neurriak .

Arazo honek ezinbestean behar du premiazko neurriak hartzea baina,aldi berean, Europa mailako neurriak hartu beharko dira gertakizun dramatiko honi aurre egiteko, agerian geratu baita fenomeno luza geratzeko etorri dela.

Argia eta agerikoa da, beraz, Europar Batasunak agenda politiko batua eraiki behar duela, arazo handi honi arreta zentzuzko eta logikoa emateko. Agenda politiko hau europar arima piztu eta elikatu duten baloreetan oinarritu beharko da: gizatasuna, solidaritasuna eta erantzukizuna . Balore horiek europar esparrua erakargarri egin dute gure inguruan gatazka armatuen eta guden ondorioz sortzen diren izu ikarak sufritzen dituzten pertsonentzat. Balore horiek adierazten dira, besteak beste, Europar Batasunaren Tratatuan babes eskubideari buruz aurreikusten diren xedapenetan (3.2. artikulua) eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartan (18. eta ondorengo artikulua). Argi eta garbi ulertu behar da Europar Batasunak printzipio horiek behar bezala betetzeko neurriak hartu behar direla. Babesari eta inmigrazioari buruzko europar politika batua da, beraz, kontinentean hartzen dugun esparru honetan gatazka humanitario ikaragarri honetan eman daitekeen erantzun zuzen bakarra.

Arestian esandakoagatik guztiagatik,Udal honek :

Lehena.- Europar Batasunari eskatzen dio babes eta inmigrazio politikak batzeko printzipioa betetzea, besteak beste, babesa emateko europar sistema bideratzea, Europari babesa eskatzen dioten pertsonen sarbide segurua emateko bisatu humanitarioak, gatazka egoeran dauden herrialdeen mugakide diren esparruetan europar babesa eskatzeko eskariak kudeatzeko harrera zentroak irekitzea, europar herrialde ezberdinetan errefuxiatu kuotak banatzeko irizpidea eta sistema definitzea eta Babesa emateko Europar Agentziari (EASO) ematen zaizkion baliabide finantzarioak handitzea- mediterraneo aldeko herrialdeetan eta bereziki Grezia eta Italian-eta etorkinak babesteko eta erreskatatzeko Frontex sistemarako (Triton eta Poseidon eragiketak) baliabideak handitzea .

Bigarrena.- Espainiar Gobernuari eskatzen dio irailaren 14an Europar Batasunean egingo den gailurrean –Estatuetako agintari gorenekin egin beharko litzatekeena- inmigrazio eta babesari buruzko europar politika bateratua martxan jartzea defendatzea eta, aldi berean, Batasunak errefuxiatuak hartzeko ezarriko duen derrigorrezko kuota onartzeko hitza ematea.

Hirugarrena.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, dagozkion eskuduntzen barruan eta Foru Aldundiekin eta Eudel erakundeareki lankidetzan, Europara Batasunaren zuzentarauen arabera jarduera plana egin dezala Euskadin errefuxiatuak hartzeko, eta premiazko laguntasun ekonomikoak bidera ditzala egoera larrienei erantzuteko.

Udalbatzak, aho batez, bi Deklarazio Instituzionak onartzea erabaki du.

Ostean, Alkate jaunak, ostatu publikoen erabileraren lehenetsunari buruz EUDELEK bidalitako idazkiak irakurri ditu, Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Eusko Jaurlaritzak eta EUDELEK, beste entitate batzuen artean, jarraitu beharreko pausuak ezartzeko ardura izango dutela adieraziz.

IV.- NORBERAK LEKARKEENA.

Libao auzoko errota edukiontzia.

Aintzane Enzunza Zorrozuak Libao auzoko errota edukiontzia ezin dela ireki esan du. Udalbatza, jakitun geratu da.

Ikastako eraikinaren egoera.

Aintzane Enzunza Zorrozuak Bizkaiko Foru Aldundiaren Ikasta eraikinari buruz galdetu du.

Alkate jaunak, eraikina konpontzen hasteak ez duela zentzurik adierazi du aldameneko lurrak eskuratu gabe.

Udalaren egoera AEKrekin.

Aintzane Enzunzak Udalak AEKrekin duen harremanaz galdetu du.

Alkate jaunak AEKrekin batera euskera eta berbalagun ikastaroak antolatzen ari direla esan du, aurreko urteetan bezala. Hala ere, pertsona konkretu batekin arazotxoaren bat izan duela adierazi du baina AEKren kudeaketa onartu eta euskara bultzatuko duela.

Haizea Bengoetxea Andikoetxeak kultur jarduerak nola antolatzen diren galdetu du.

Haizea Bengoetxeak urteko jarduera kulturalak nola antolatzen diren galdetu du.

Aitzbea Yartok jarduera kulturalak antolatzeko batzarrak egiten direla adierazi du.

Alkate jaunak bilera publiko bat egingo dela adierazi du, auzotarrek eta kultur Erakundeek parte hartu ahal izateko kultur jardueren programa egiteko.

Zortziak eta laurdenetan Aitziber Ibinarriaga Delgado sartu da Batzar gelara.

Aktak entitate publikoetara bidaltzeko Gartzen Agirregoitia Abadek egindako proposamena.

Gartzen Agirregoitiak, Udalbatzetako Aktak zein entitate publikora bidaltzen diren galdetu du. Udal batzuk euskeraz bakarrik bidaltzen dituztela azaldu du eta azken

epaile-ebazpenek Udal hauei arrazoia eman dietela eta beraz, euskeraz bakarrik bidaltzea proposatu du. Udalbatzak, aho batez, adostasuna adierazi du.

Idazkariak, bere ustez, Aktak bidaltzea Idazkarien erantzunkizuna dela esan du.

Arrietako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren hutsen zuzenketari buruz galdetu du.

Gartzn Agirregoitia Abadek Arrietako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartzeko asmoz, Bizkaiko Foru Aldundiaren Hirigintza Sailak eskatutako hutsen zuzenketari buruz galdetu du. Bere ustez, gai batzuk, besteak beste, hiri lur erabilerak markatzea, eraikinen tipologia eta Transformazio Zentruak, Udalbatzarrean eztabaidatu beharko lirateke.

Alkate jaunak Arkitektuari zuzenean galdetuko diola esan du eta jakinaren gainean jarriko dituela.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo dau bilkura gaueko zortzi eta erdietan. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da, eta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da onartu ahal izateko.